

HERNANIKO AGENDA 21

Olatz Urrutibeaskoa (Udaleko Ingurumen Teknikaria) • Argazkiak: Jesusmari Gomez.

Duela urte batzuk batere ez zen entzuten; azken urteotan berriz, gero eta gehiago entzuten ari gara oraindik gehienentzat kluxe bat besterik ez den Tokiko Agenda 21 edo Udal Agenda 21en kontuak. Adibide batzuk aipatzearren: Azkoiti-Azpeitiko Agenda 21, Tolosakoa eta Andoaingoa, eta, orain, Hernaniko Agenda 21.

Nondik datoz? Zer jatorri eta historia dute?


Lehenengo galderari azkar eta labur erantzunez: goitik datoz, agintariengandik, eta ezinbestean behera iritsi nahi dute, hango eta hemengo herritarrenganaino.

Egin dezagun historia pixka bat: 1992an, Nazio Batuen Erakundeak Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentzia antolatu zuen Rio de Janeiron, eta bertan mundu guztiko 173 gobernuak Agenda 21 izeneko ekintza-plana onartu zuten XXI.

mendean aurrera eramango den garapena jasateko modukoa izan dadin, baliabide naturalak errespetatuko dituen eta ez agortu edo suntsituko dituen.

Hasiera-hasieratik oso garbi ikusi zuten Agenda 21 sinatu zuten agintariak herritarrengana iristeko oso garrantzizkoa zela tokian tokiko administrazio eta agintariekin elkarlanean aritzea, hauek direlako herritarrengandik hurbilen daudenak, eta hauek direlako garapen jasagarriaren alde herritarrak sentiberatzen eta mugiarazten lan eraginkorrena egin dezaketena.

Rio de Janeirokoak lehenengo harri garrantzitsua jarri zuen, gero hura osatuz joateko beste ekarpen axolazko bat egin zen Aalborg-en (Danimarka. 1994), hiri jasagarri buruzko Europako Konferentzian. Hona Aalborgeko Gutunetik hartutako aipu bat, ingurumen jasagarritasuna esaten dugunean zer esaten ari garen azaltzen duena:



"...Ingurumen jasagarritasunak baliabide naturalak babestea esan nahi du. Honek esan nahi du ezin ditugula baliabide naturalak, ur eta energia berriztagarriak kontsumitu, berriz sortzeko gaitasuna dugun neurrian baino, eta baliabide ez berriztagarrien kontsumoaren erritmoak, berriz, ez du izan behar baliabide berriztagarri iraunkorren ordezkatzeko-erritmoa baino azkarragoa. Era berean, ingurumen jasagarritasunak esan nahi du aireratzeko diren gai kutsatzaileen kopuruak ez duela

handiagoa izan behar aireak eta lurra eta urak haiek xurgatu eta prozesatzeko duten gaitasuna baino.

Ingurumen jasagarritasunak berekin dakar gainera dibertsitate biologikoa, osasun publikoa, airearen kalitatea, urarena eta lurraena gizakion bizitza eta ongizatea ziurtatzeko adinako neurrian babestea eta zaintzea..."

Aalborgekoari Lisboakoak eman zion segida 1996an, eta honi jarraipena Finlandiako Turku-n egin zenak 1998an; eta harrezkero, Sofian (Bulgaria), Sevillan eta 2000an

Hannoverren egindakoek. Kate honek jarraituko duen itxura guztia du gainera.

Baina goitik jaitsi gaitezen beherago, gure eguneroko bizimodura eta ikus dezagun zer eskatzen digun gutako bakoitzari delako garapen jasangarriak; ikus dezagun nola kolaboratu dezakegun nork geure neurrian.

Denok gara herritarrak. Badakigu ahalik eta zabor gutxien sortzen ahalegindu behar dugula. Zenbat eta ontzi edo biltzeko paper edo kartoi gutxiago duten salgaiak erosi, hainbat hobeto; zenbat eta paper gutxiago kontsumitu, orduan eta baso gutxiago suntsitu beharko dira, denok dakigunez. Gutxiago kontsumitu eta sortzen dugun zaborra gaika biltzea eta bakoitza bere edukiontzi propioan uztea garrantzizkoa da hondakinak birziklatzea errazagoa gerta dadin; eta, jakina, ez dago azaldu beharrik birziklatzea zein axolazkoa den. Hasiak gaude zaborrak zorro desberdinetan biltzen, eta zorro hauek ontzi desberdinetan botatzen: horian plastikoak, berdean botilak, urdinean paperak eta kartoiak, pilak hori txikietan, eta ez, oraintsu arte bezala, eta oraindik ere zenbaitek egiten duen bezala, dena zorro batean eta dena edukiontzi berera. Ohitura bihurtzen ari den hau finkatzea eta erabat orokortzea, helburu apala izanagatik, oso garrantzizkoa da.

Beste horrenbeste esan dezakegu olioaren zikloaz. Oliba, arto edo eguzki-belarraren hazietatik ateratzen den olio, naturak ematen digun olio, janaria prestatzeko erabili ondoren, bi aukera ditugu: bata, harraskara botatzea, labezomorro eta arratoiak gizentzeko eta Urumea kutsatzeko balio dezan; edo, bestea, ontzi batean jasotzea eta, Hernaniri dagokionez, hilaren bigarren eta azken asteko ostegunetan, delako ontzi hori pilotalekuaren aurrean egon ohi den bilketa-postura eramatea. Azken hau egiten badugu -hilean 300-400 bat litro biltzen dira dagoeneko Hernanin, eta emaileak 300 herritarretatik gora dira egun-, naturak ematen digun olio horri etekin onuragarria ariko gara ateratzen; izan ere, bildutako olio erabilia, batez ere biodiesela egiteko erabiliko da, eta biodiesel hori garraio publikorako erregaia, hitz batean, erregai ekologikoa, izango da.

Ibilgailuen ildoari jarraituz, denok dakigu zenbat poluitzen duen airea autoek isurtzen duten CO²ak. Zorionez, erabat zabaldu da

berunik gabeko gasolinaren erabilera. Zoritxarrez, asko gelditzen zaigu, oraindik, garraio publikoa benetan indartzeko, eta erabiltzen dugun erregaia gero eta ekologikoagoa izateko. Ez dugu ezer esan bizikletaren erabileraz. Holandara antolatu beharko ditugu txangoak, hango ohitura osasungarria eta naturarekiko errespetuzkoa guztiz kutsa dakigun.



Lehenik: kontsumoa gutxitu; bigarrenik, erabilitakoa berriz erabili; eta azkenik, hondakinak gaika bildu. Horretarako ditugu ontzi aproposak.

Aurten bildu dira Bartzelonan Europako Batasuneko agintariak, eta ekologisten iritzian, garapen jasangarriari baino hazkunde ekonomikoari eman diote lehentasuna. Kontsumoa gutxitzeko neurriak bultzatu ordez, hau haz dadin komenigarriak diren neurriak sustatu nahi omen dituzte: autobide berriak, abiadura handiko trenak eta hegazkinak Europa barruko komunikazioa bizkortzeko. Garbi dago era horretako proiektu erraldoiak ezin ezkon daitezkeela jasangarritasunarekin.

Aipatu ditugun adibideak, hots, ahalik eta zabor gutxien sortzea, gaika bildu eta edukiontzi desberdinetan botatzea, erabilitako olio biltzea edo bizikleta sustatzea, oso gu guztion esku dauden bezala, aipatu ditugun proiektu erraldoiak edo, beste maila batean, Hernaniko industria kutsatzaileak Agenda 21en filosofiara eta, batez ere, praktikara



Herritarron kolaborazioa: olio erabilia ECOGRAS-ekoei ematen. Bildutako olioarekin, besteak beste, autobusek erabiltzen duten biodiesela egiten da.

ekerraraztea ez dago hain eskuera, eta bistan dago oso garrantzizkoak direla helburutzat dugun garapen jasangarrirako. Hernanin kokaturik dauden industria kutsatzaileak

denok dakigu zein diren. Denok dakigu Hernaniko eta inguruko herritar askori ematen diotela lana eta bizibidea. Ez da erraza interes eta premia guztiak aintzat hartzea, eta badakigu erabaki axola handikoak ezin direla gauetik goizera hartu, baina bistakoa da industrien lankidetzarik gabe herritar guztion borondate onenak tupust egingo duela ezinarekin.

Aurreko guztia egia izanagatik, horrek ez gaitu eraman behar ardura besterena dela pentsatzera, ardura soilik industria multinazional eta agintari boteretsuena dela uste izatera. Dagoeneko hasiak gara hernaniar mordoska bat munduaren zati handi bat bere baitan hartzen duen plan horretan, XXI. menderako den plan horretan, partaide izaten, ekintza xumeak baina aldi berean garrantzizkoak egiten hasiak garenez gero: gutxiago kontsumitzen, hondakin gutxiago sortzen eta hauek birziklatzeko bidea egiten hasiak garenez gero. Orain, hori bai, egindakoa baino askoz gehiago dugu eginkizun, eta badakigu esaera zuhur batek zer dioen, besteri eskatzen hasteko norberak behar duela hasi etsenplu ematen.



Industriak beharrezkoak ditugu, baina guztion bizi-kalitateari, al bait kalterik gutxien egingo diotenak.